


Noqua!!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko abenduak 12

Usurbil, 32. Zenbakia



**Eroskiren
hipermerkatua
zalantzan**

HILDAKOAK

1997-11-29
Julia Izagirre Bereziartua
 90 urte
 Aginaga



1997-12-8
 Kerman Rekondo Aizpurua
 74 urte
 Kaleberri

EZKONTZAK

Izaskun Ugarte Balerdi (Kalezar)
 eta
Jose M^o Lizarralde Gurrutxaga (Orio)
 (1997-11-29)

David Caballero Martinez (Kalezar)
 eta
Jaione Eizagirre Mujika (Kalezar)
 (1997-12-06)

UDAL LIBURUTEGIKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera: 16.00-19.30
Asteazkenetan: 10.00-13.00 / 16.00-19.30
Larunbatetan: 10.00-13.00

MEZA ORDUAK

Igande edo jai bezperatan

18.30etan Kalezarko monjetan
19.30etan Aginagako elizan
20.00etan Usurbilgo parrokian

Igande edo jai egunetan

9.30etan Zubietako elizan
10.30etan Aginagako elizan
10.30etan Urdaiagako ermitan
11.30etan Usurbilgo parrokian
12.30etan parrokian. Erdaraz

EUSKO TRENBIDEAKEN AUTOBUS ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN						ASTEBURUTAN		
Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Zarautz
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30	07.30	07.55	08.15
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00	08.30	08.55	09.15
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30	09.30	09.55	10.15
09.00	09.30	09.40 *	08.15	08.35	09.00	10.30	10.55	11.15
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30	11.30	11.55	12.15
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00	12.30	12.55	13.15
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30	13.30	13.55	14.15
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00	14.30	14.55	15.15
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30	15.30	15.55	16.15
13.00	13.30	13.40 *	11.45	12.05	12.30	16.30	16.55	17.15
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30	17.30	17.55	18.15
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55	18.30	18.55	19.15
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30	19.30	19.55	20.15
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00	20.30	20.55	21.15
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30	21.30	21.55	22.15
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55	22.30	22.55	22.15
17.41	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30			
8.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00	Zarautz	Usurbil	Donostia
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30	06.45	07.05	07.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30	07.45	08.05	08.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30	08.45	09.05	09.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00	09.45	10.05	10.30
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30	10.45	11.05	11.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00	11.45	12.05	12.30
						12.45	13.05	13.30
						13.45	14.05	14.30
						14.45	15.05	15.30
						15.45	16.05	16.30
						16.45	17.05	17.30
						17.45	18.05	18.30
						18.45	19.05	19.30
						19.45	20.05	20.30
						20.45	21.05	21.30
						21.45	22.05	22.30

*Orioraino bakarrik

**Aiaraino joaten da

*Oriotik irtetzen da

**Aiatik irtetzen da



- Udala
- Udaltzaingoa
- Anbulategia
- Udarregi ikastola
- Agerialde ikastetxea
- Oiardo kiroldegia
- Zumarte musika eskola
- Etumeta euskaltegia

- 37 19 51
- 36 11 12
- 36 20 13
- 36 12 16
- 36 38 95
- 37 24 98
- 37 15 94
- 37 20 01

- Taxi geltokia
- D.Y.A.
- Gurutze Gorria
- Gure Pakea egoitza
- Gure Elkarte egoitza
- Arrate egoitza
- Eusko Tren informazioa
- **Noaua!** aldizkaria

- 36 21 78
- 46 46 22
- 27 22 22
- 37 32 28
- 37 17 51
- 36 63 40
- 47 09 76
- 36 03 21

Zer irizten?

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua!
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21.
e-mail:
mandio@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.

Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.
Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Ines Kamino, Leire
Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe
Begiristain, Amagoia Mujika,
Xabier Arregi, Pako Agudo,
Alfontso Vidal, Nieves
Aranburu, Luis Aranalde, Zalao
Arnaiz, Maribi Arrospide eta
Agurtzane Solabarrieta.

Administrazioa: Arantxa
Usarralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino. **Eredakzio
Kontseilua:** Olatz Altuna,
Garikoitz Udabe, Jose Jabier
Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa eta diseinua:

Susana Martin eta Aitziber
Elortza. **Argazkia:** Joxe Antonio
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-
so. **Banaketak:** Mertxe Jimenez,
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.
Elektrikaria: Iñaki Salsamendi
Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola,
Tirada: 2.200 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak
ez du bere gain hartzen aldiz-
karian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik.

**AZALA: Atsobakar
(Urbarteko) lurrak.
Eroskiko hipermerkatua-
ren kokalekua**



Anbulategian euskaraz

Xabier Pikabea

UEMAN Usurbilgo ordezkaria

Hi Xabil, ez al gaudek UEMAn sartuta? Ez al zen, ba, Usurbil, orain dela gutxi, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartu?

-Joxe, harpa jotzera badakik nora; ondotxo dakik hori horrela dela. Gialde hori mugitzen hasi al zaik? Hego-haizeak jo al hau?

-Hego-haizeak? Gaur goizean joan nauk ambulategira, eta, xano xano medikuarekin hasi naizenean hitza kendurik hauxe adierazi zaidak: "oye, ni euskara piskat; hablame por favor, en castellano". Egitan esaten diat, une horretan mihia galduta ibili diat; non nuen ez dakidala. Arraioa!, hori trantzea!

-Baina, baina... zer demontre esaten ari haiz? Euskara ez dakien berri bat sartu digutela?

-Emakumezko mediku euskaldunaren ordezkari, berri hau jarri zigutek, euskaraz ez dakiena; halere, honen guztien berri udalak jakin bazakiela uste nian nik; UEMAn sartuz gero, gauzak ez al dituk udalaren konpetentzian geratzen? Balio dik, bestela, UEMAn egoteak! Usurbilen %18a euskara ez dakiena, eta, mediku kastellano hutsa sartu; oraintxen ere kuxidade ederreko ekuazioa ateratzen zaidak: %18=100.

Kopuru honen mesedetan, gainera kook- %82 euskaldunak izanik eregeurea ez den hizkuntzara behartu eta bultzatu. Jainkoarren, hi, jainkoarren! Gero, gehiengoaren izenean hitz egiten ditek! Gehiengo eta demokrazi hitza erabili, barra barra, aho betean!

-Txundituta utzi nauk, Joxe, zeharo jota; egia esan ez nian horrelakorik espero. Hala ere, ezer baino lehe-

nago, gauza bat argitu behar diat: udalak, horretan, ez duela eragin zuzenik, ambulategiak Osakidetzaren ahalmenetan baitaude; zerbait egin badezake ere, guztiz zeharkakoa duk: Osakidetzari, berari, gutun bat zuzendu-edo, horrelako zerbait, bestetan egin izan duen bezala. Orain dela egun gutxi, ikustak zer argitu zidan emakume batek: "Xabier, aurreko batean, Agiñako hiletara joan nintzen; hildakoa, badakizu, euskaldun peto-pettoa; apenas erdaraz jakingo zuenik ere. Hara bertaratutakook, esateko, erabat euskaldunak; ba al dakizu elizkizuna, hortxe-hortxe, %50a erdaraz esan zuela?"

-Hori ere egia ote?

-Bai, Joxe, bai, batzuen burutan gauzak horrela zaudek. Hemen ere, beste ekuazio polita ateratzen zaiduk: %2=50. Ehuneko bira bakarrik kastillanoaren kopurua, Agiñan, eta hala ere, elizkizun erdia kastillanoz eman behar; burutazio ederragorik! -Arraioa!, zer diok?

-Zer diodan? Egiztat belarriak, jarri erne Usurbilgo hainbat bazterretan eta aurkituko duk kuxidade ederrik; makinatxo bat talde, euskaldunak direlarik ere, harrapatuko dituk "españolez"; bai horixe!

-Hi, Xabi, gustora nagok hirekin, baina joan beharra zeukat; afaltzeko garaia diat eta etxeokak, jada, nire zai izango dituk; jarraituko diagu beste batean, baina, ez etsi; segi aurrera! Bihar ez, baina, etzi berriro hemen izango nauk, eta, "hasta el domingo" orduan, Xabi, "hasta domingo".

-Bai, Joxe, txakolin bana hartuz elkar ikusiko diagu gurean gozoz mintzatuz, eta agur!



Usurbilgo Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

**365
bazkide ditu Noaua!k.
Zu ere egin zaitetz
bazkide**



Eskerrik asko Arantza Arrillaga eta Beatriz Irusuegi

Kalezarko konbentuan dauden Lourdes eta Bernardeta amabirginen aurpegiek nahiz koloreek hobera egin dute dudarik gabe. Aspaldi honetan Usurbilgo herriaren alde errezatzen dihardute gure ahizpa zaharrek eta bi amabirgina hauek laguntza handia eman dute.

Zer gertatu da? Berriz ere mirari bat? Arantza Arrillaga eta Beatriz Irusuegi galdetu beharko diegu. Izan ere, hauek egin duten lana izugarria izan da. Egoera txarrean zeuden bi amabirginak berpiztu dituzte, lehen zuten dizdira emanaz. Oraindik ez dute hasi zuten lana amaitu, baina kalezarko monjekaldez aurretik eskertu nahi dugu bi usurbildar hauen lana.

Eskerrik asko Arantza eta Beatriz, haitzulo honetako txoko honetaz gozatzea posible egin duzuelako.

Mertxe Lazkano (Kalezarko monja)



Pasa den ostiralean, abenduak 5, Txokoalden dagoen Berriola lantegiko langileek Santa Barbara eguna, elektrikarien eguna, ospatu zuten. Illunben bazkaldu ondoren mus txapelketa jokatu zuten. Bertan, Juan Iraola eta Aitor hernanirrek irabazi zuten. Bigarren postua, berriz, usurbilgo Jose Luis Muguruza eta Sebastian Kortarentza izan zen. Ondoren, kiroldegian futbol partidu bat jokatu zuten, ezkonduak ezkongabeen aurka (goian, argazkian). Ezkongabeek irabazi zuten 7 eta 2. Gero afaria eduki zuten Araeta jatetxean. Afalondoren Oriora joan ziren dantzara goizeko ordu txikietan etxeratu zirelarik.



Ekaitz

Bideo eta Argazki

Usurbil

tlf 36 14 87

oiartzun

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2

Tel.: 37 10 42



BAZKARIAK
ETA AFARIAK

Santueña 23
Tlf. 36 27 34



JOXE AGINAGA BEGIRISTAIN

Illunbe baserrian jaio eta bertan bizi da 77 urteko gizon hau. Baserrian lan ugari egindakoa, oraindik oroimen ederra dauka gaztetako konuetaz hitz egiteko.



Txokoaldeko Illunbe baserrian jaiotakoa zaitugu, beraz.

Ez, ni Urdaigakoa naiz. Txokoalde izen berria da eta ez zait batere gustatzen. Guk beti Urdaiaga edo Urdaldia bezala ezagutu dugu.

Zer gogoratzen duzu txikitako garaiaz?

Zazpi urterekin Aginagako eskolan hasi nintzela, eta bertan ez nuela batere ikasi. Izan ere, "maistra" batekin egongo ginen 50 bat ume, eta horrela ikastea oso zaila da. Gero Gertrudisekin, Matilderen izebarekin, hasi ginen ikasten Sanestebanen, eta harekin bai, ikasi genituen ikasi beharrekoak! Batuketa, kenketak, biderketako taulak, dotrina...

Oso gogorra zenaren fama omen zuen.

Beno, baina guk izugarritzko "kariñoa" genion. Egunero bidera ateratzen ginen egun onak ematera. Hori bai, zigortu ere zigortzen gintuen. Gogoratzen naiz makiltxo bat eramanarazten zidala, eta harekin kaxka-kaxka buruan jotzen zidan. Berarekin hamar urtera arte aritu nintzen.

Komunio haundia egiteko garai arte, beraz.

Bai. Hala ere 11 urte behar ziren komunio "general" egiteko. Gertrudisekin, berriz, ederki ikasi genuen dotrina, azkenerako latinak eta guzti. Horrela, behin hala esan zidan: "*Hik ez dauzkak 11 urte baina esaiok erretoreari gezurra. Dotrina oso ongi dakik eta ametituko hau*". Erretorearengana joan (Don Guillermo), zenbat urte nituen galdetu eta 11 nituela erantzun nion, baina ez nintzela gogoratzen noiz. Dotrina ba al nekien galdetu eta baiezkoa esan nion. Ondoren, galdera batzuk egin zizkidan eta denak erantzun nizkion. Horrela hamar urterekin komunioa egin nuen.

Eta behin eskola amaituta zertan hasi zinen?

Baserrian lana gogotik egindakoa naiz; alferriko lan ugari eginga dugu, ez da oso ona batek esatea baina... Gero, 15 urte nituela Gerra Zibilak harrapatu ninduen. Gaztea nintzen orduan, baina ni ere soldadu joandakoa naiz gerrara, baina frentera joan gabe. Guda 1939ko apirilaren 1ean bukatu zen eta ni solsendu Iruñera joan nintzen otsailaren 5ean.

Gogorak izango ziren garai haiek, beraz.

Bai, bost urte pasa nituen soldadu. Hasieran "nazionalistekin" eta gero Francoren ejerzitoan. Nafarroa eta Burgos aldean ibilitakoa naiz, eta baita lagun onak egindakoa ere. Hiru urte pasata, ofizial batek Donostiatik arraia ekartzeko mandatua eman eta hori egiten jardun nuen urte bete edo. Nafarroan arraia garestiagoa zen, eta nik prezio hobean ekartzen nuen. Garai honetan patrikarako dirua egin nuen.

Eta herrian ze eragin izan zuen gudak?


Gerra aurretik ezin genuen elkar ikusi Aginagarrak eta guk. Gerrak, ordea, elkarren beharra ekarri zuen eta amaituta harremana askoz hobea zela esan behar da.

Eta ejerzitoan euskaraz hitz egin al zitekeen?

Ofizialak aurrean ez zeudenean guk beti egiten genuen euskaraz, baina argi ibili behar zen! Orain, ordea, hau desberdintasuna, dena euskaraz ikasten da. Nik uste dut euskarak hain garai txar hori pasata indartuta atera zela. Izan ere, euskaldunok euskara oso maitea dugu. Hala ere, nire koinatua naparra zen eta hark ez zekien euskaraz. Berarekin ikasi nuen 12 urterako erderaz. Askok esaten zidaten ea non ikasi nuen, garai hartan Usurbilen oraindik gutxi baitzekiten.

URDAIRA

sagardotegia



Abenduaren 20an
barrikotea egingo dugu.
Zatoz!

Urdaira baserria
Aginaga Tel.: 37 26 91

**Lekua erreserbatzeko
deitu alde zuretik**



TXIRIBOGA

TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 - Tf. 37 00 13

TXOKOALDE



**Iñaki
Labaka**

Auzoko lanak noiz bukatuko dituzten zain

Negua iritsi zaigu. Udazkenean izan genituen beroaldiak atzean gelditu dira eta hotzaren arrastoan sartzea beste aukerarik ez dugu izan. Etxeko suaren epeltasunean goxo-goxo egoteko ordua iritsi zaigu beraz.

Txokoalden, aldiz, hotzari aurre eginez, lanean jarraitzen dute. **Errekaren bidea zuzentzen** ari dira piskanaka-piskanaka eta Saltxipi aurreko zubiarekin ari dira lanean. Momentu honetan **hiruzpalau langilek** dihardute lanean. Hasieran jende ugari ibili bazen ere, azkenaldi honetan langile kopurua beheruntz doa. Hau da marka, hau! Guk, Txokoaldeko kaxkoan ikusi nahi ditugu lanean eta ezin bertara iritsi. **Dirua amaitzen** ari ote zen ere esan nuen aurreko batean, eta orain ere, susmo berdinarekin jarraitzen dugu.

Txokoaldeko lanak burutzen ari diren langileak gero eta gutxiago direla egia da, baina beste mota bateko langileen ugaritzea nabaritu



dugu azken hilabeteetan. Izan ere, **Berriola lantegira** gero eta kotxe gehiago hurbiltzen da. Dirudenez, gauzak ondo doaz lantegi honetan eta gazte ugari ari da bertan lanean. Berri pozgarria benetan, gaur egun langabezia arazo latza baita.

SANTUENEA



**Agurtzane
Solaberrieta**

Ibaiak gainezka egingo duen beldurak

Ekainaren 1a oraindik Egogoan daukagu guztiok. Udaberriko egun hartan izandako **uholdeak** ez dira berehala ahaztuko, Etxealdian eta Txokoalden izandako hondamendiak ez baitira ahaztekoak. Santuenean ez zen ezbe-



harrik izan. Oria ibaiari itsatsita egon arren, honek ez zuen gainezka egin.

Orain, neguan sartzeaz gaudenean, **uholdeen itzala** somatzen da **Santuenean**. Atalluko lanek zerikusi haundia dute horretan. **Atalluko lurren altuera** gehiegi igo dute santueneatar batzuen ustez. Lehen, bi aldeak parean zeuden, baina orain, azken hila-beteetan egin dituzten obra erraldoiekin, Santueneako aldea beherago gelditu da.

Oria ibaiak gainezka egingo

balu, ibaia, lehendabizi, Santueneako aldera aterako litzatekeenaren ustea dute. Atalluko aldeak altuera haundiago duenez, bertara joan behar lukeen ura ere Santueneara bideratuko litzateke. Beraz, orain, Santuenean uholdeak izateko arrisku gehiago dagoela pentsatzen dute.

Honelakorik ez gertatzea nahi genuke. Azken asteetan euria egin du, Oriako urak ere nabarmen egin dute gora, baina ibaiak bere bidea jarraitu du, alboetatik atera gabe. Hemendik aurrera ere, bere bidea jarraituko duela espero dugu.

AGINAGA



**Iratxe
Begiristain**

Gabonekin batera datozkigu angulak ere

A benduan sartu gara, bai, eta gabonak gainean ditugu ja. Bazkari eta afari goxoak izaten ditugun garai horretan, angularen prezioaren inguruan esames ugari izaten da toki askotan. Aginagan ere, angula herria izanik, **angularen gorabeherataz** askotan hitzegiten da.

Angula harrapaketak aurrera darraite azken aste hauetan. Hotzak ez dituzte **angula harrapatzaileak** kokildu eta farolak behin baino gehiagotan ikusi ditugu gaueko iluntasunean. Hala ere, angula asko harrapatzen dutenik ez dirudi, oraindik ez baita zabaldu

Aginagan horren berririk. Aurrerantzean harrapatu behar-ko dituzte, gabonetan angulak jan nahi badira behintzat.

ZUBIETA



Xabier Arregi

Herri batzarraren lehen urtemuga

Zurtebete beteko du datozen egunetan. Abenduaren 15ean egin ziren hauteskunderak eta astebete beranduago herri batzarra ofizialki eratuta gelditu zen.

Denbora honetan hainbat ekimen aurrera eraman dira Zubietan. Zubietako plan partziala martxan doa poliki-poliki. Plan partziala jende aurrean egon da azken hilabetetan, eta hainbat alegazio jaso ondoren, hirigintza **aurre-proiektu** neutral **bat** egitea onartu da. Bestalde, Zubietako bihurguneen egoera hobetze-ko proiektua ere aurrera doa. Hauekin batera herrian bertan hainbat ekimen atera dira aurrera, eta Usurbil nahiz



Donostiako udalekin harreman estuagoa du Zubietak.

Bestalde, eta urtemugekin jarraituz, Zubieta, Donostia eta Usurbilgo jurisdikzioen artean banatu zela datorren urtean beteko dira **620 urte**. Pedro Sancristobalek liburu beltzean azaltzen duenez, garai hartan **Zubieta zeharo libre** zen Usurbil eta Donostiatik, baina **1378an**, biztanle bakoitzaren botazioak hala eskatuta, kanporatu egiten da: hirutik bi Donostiako jurisdikziora eta bat Usurbila.

KALEBERRI



Ines Kamino

Joxe Manuel Borda eta Felisa Izagirre: 57 urte ezkontuta

Berandu bada ere, zoriondu behar-ko dugu bikote hau. Izan ere, urriaren 20an **ezkondu** zirela **57 urte** bete ziren. Ez da marka makala! 1940an ezkondu ziren eta oraindik elkarrekin jarraitzen dute **Joxe Manuel Borda** eta **Felisa Izagirrek**. 88 urte ditu lehenengoak eta 82 urte bigarrenak, baina oraindik gazte mantentzen dira biak.

Garai haiek ederki gogoratzen dituzte biak. Gazte-gazte-tandik ezagutzen direla diote, Felisa **Usaskutik Txikierrira** joaten baitzen Joxe Manuelen arrebarekin josten ikastera. Felisaren esanetan, *"garai hartan Joxe Manuel nire gizona izango zela ez nuen pentsatu ere egingo"*. Urtebete pasa omen zuten nobio moduan, bizimodu hartaz aspertu eta ezkontzea erabaki zuten.

Usurbilgo parrokan ezkondu eta Orioko Gran Hotelean



bazkaldutela aipatu didate. Garai hartan ez ziren 100 lagunetik gora bildu ezkontza bazkarian, apaiza, ezkonberririk, eta amabitxia eta aitabitxia bakarrik izan ziren bazkaltzen. Denetik jan omen zuten, bazkari ederra, eta ordaindu ere bai; bost pertsonentzako bazkaria **15 duro** ordaindu zuten. Ondoren, trenea hartu eta Bilbora joan omen ziren ezkonbidaietan 1000 pezetarekin joan, eta itzultzerakoan dirua soberan zutela esan zidan Felisak..

57 urtetan beren haserreak izan dituzte, nola ez, baina egun batzuk muturrean egon eta gero, hikamika hori gaindituta gelditzen omen da. Joxe Martinen esanetan esatera bat ba omen du horrek: goizean haserre, baina ilunabarrean maindire azpian adiskide.

Aurten 57. urteurrena ospatzeko **familiarteko bazkaria** egin dute. Urrezko ezteiak bete zituztenetik **urtero** egiten omen dute bazkari hau. Beste urte askoan ere horrela jarraitu dezatela!



H erorrek esan



Jose Manuel Murita

Kaleberri

Gabonetan ez, baina "El Niño"-rako hartzeko ohitura izaten dugu emazteak eta biok. Gutxi jokutzen dugu, hiru edo lau mila pezeta inguru. Aparteko errifak ere hartzen ditut, baina eskaintzen dituzte-nean bakarrik. Hala ere, bai batean eta bai bestean gutxi tokatu izan zait orain arte.



Jon Zubizarreta

Kaleberri

Lagun artean beti jokutzen dugu zenbaki bat, besterik ez. Eta oraingoz ez zaidanez ezer egokitu, gutxi jokutzen dut.



Ines Martinez

Atxegalde

Nik normalean ez dut jokutzen. Ez loterian, ez errifetan, eta ezta ezertan ere. Semeek ikastolatik ekartzen dituztenak bakarrik hartzen ditut. Nire eta bere parteak senarrak erosten ditu. Bestela, orain arte ez zaigu gehiegirik suertatu, reintegro bat behin.



Eli Pesquera

Bizkarre

Oso gutxi jokutzen dut, izan ere diru asko joaten baita horrela eta urte-garai honetan parrandetarako ere utzi behar da zerbaite. Loterian 2000 pezeta inguru hartzen ditugu. Hala ere, inoiz ez zait ezer egokitu, beno, txikitari tarta bat bai.



Joseba Pellejero

Kalezar

Eguberrietako loteria lantokitik hartzen dut. Eta tabernetako errifa pare bat ere bai, baina gehiago ez. Noizbait bota adina jaso dut, baina hortik aurrera ezer gutxi.



Mari Jose Unsain

Santuenea

Nik ez dut jokatzten, baina senarrak urtero dauka loteria erosteko ohitura. Ja hartu ditu boleto batzuk. Normalean tabernetan edo saltzen ikusten dituen tokietan erosten ditu. Eta honetaz aparte, errifak ere hartzen ditu. Denak tentazioa ematen dio. Egokitu berriz behin egin zitzaigun, eta bota adina.



Miguel Angel Santiago

Kaleberri

Bai, beti jokutzen dut, baina gehiegi ere ez. Lanean urtero hartzen dut, eta Salamancara joaten naizenean ere beti erosten dut. Baina nahiz eta urrutitik hartu, ez da ezer egokitzen.



Azuzena Rodriguez

Olarriondo

Nik ahal dudana guztietan jokutzen dut, loterian, primitivan, itsuetan, seme-alaben errifetan... Jokatu asko baina ez zait ezer tokatu oraindik. Gabonetako loteria berriz, toki ezagun guztietan hartzen dut, ez dadila gertatu bati tokatzea eta niri ez.

Kirolak eta gazteentzako moda
Atxegalde, 10 Tel. 36 65 42

TABERNA-JATETXEA

ANTAXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 37 03 44

Andatza

karr ozeria

Gumer Sánchez

Osinalde industrialdea
Errota Berri kalea
USURBIL

☎ 36 36 77

Txokoaldeko aparkalekuaren proiektua aurrera

Pasa den ekaineko uholdeen ondorioz, txokoaldetarrak aparkalekurik gabe geratu ziren. Hau konpontzeko, Udalak Aginagatik gatzela zubia pasa eta eskubitarra geratzen den lurra eskuratzeko tratua egin du ja. Gainera, proiektua lehiaketara atera da eta erabaki dute lan hau egingo duen enpresa Teide izango dela. Beraz, egun batetik bestera hasiko dira lanak.

Proiektu honetan 70 autorentzat aparkalekuak egingo direla aurreikusten da. Gainera, obra honetan bete-lana egiteko behar diren harriak Amiri erriotik aterako dira. Era honetan, alde batetik erreka garbitu egingo dute eta bestetik, merkeago aterako da obra.



Semaforo berriak jartzea onartu dute

Gobernu Batzordeak aho batez onartu du Donostiatik gatzela herriko sarreran (Ostape baino lehenago) abiadura mantxotzeko semaforoak jartzeko beharra. Izan ere, nahikoa arriskutsua gertatzen da askotan bide hau. Semaforo hauek Sicce enpresak jarriko ditu eta hauek jartzeko azpiegitura Construcciones Armendi enpresaren esku geratuko da. Azpiegitura hauek 1.377.685 pezetako aurrekontua izango dute, semaforoak aparte.

Udaltzain berria daukagu

Egun hauetan ez harritu zure kotxean ezagutzen ez duzun gazte batek multa jartzen badizu. Izan ere, hemendik aurrera eta denbora baterako udaltzain berria izango baitugu herrian. **Koldo Etxeberria** du izena eta Irungoa da. Orain arte Iñigo Garcia de Ulate herritarraren postua hartuko baitu ordezkapena egiteko.

Beraz, abisatuta zaudete; izan ere, orain badakizue noren aurrean ezin dezuten autoa gaizki aparkatuta utzi.

1998. urteko aurrekontuak prest

Udalak 1998. urteko aurrekontuak datorren abenduaren 22an onartuko ditu ofizialki. Hori dela eta, urteko azken pleno honetara ahalik eta herritar gehienak etortzea nahiko lukete.

Lehenengo aldia da Udalak aurrekontuak urtea hasi baino lehenago egiten dituela. Jose Antonio Altuna, alkatearen esanetan, "iaz otsailean amaitu genituen aurrekontuak, nahiko hurbildu ginen. Baina aurten azkenean eta lehendabiziko aldiz lortu dugu aurretik amaitzea. Atzo herriko taldeei aurkeztu genizkien aurrekontuak, eta datorren 22an herriaren aurrean aurkeztuko ditugu. Hau dela eta, ahalik eta usurbildar gehien etortzea eskertuko genuke".



PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL

xabier
aristegia

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 36 19 78

Eroski bertan behera gelditzeko zorian

Eroski S. Coop. elkarteak Atsobakarren (Urbarten) eraiki behar duen hipermerkatuaren proiektua geldirik dago momentu honetan. Zailena eginda zegoela zirudienean, ustekabeko arazoak sortu dira lurren kalifikazio aldaketarekin. Uztaillean Usurbilgo udalak eta Eroskik egin zuten hitzarmenaren ondoren, diputazioak lurren kalifikazio aldaketari baiezkota eman behar zion sei hilabeteko epean. Epea abenduaren 28an amaituko da eta oraindik ez da erabakirik hartu.

Orain dela sei hilabete argi eta garbi zegoen guztia. Hitzarmena lortu ondoren, lurren kalifikazio aldaketa egitea besterik ez zen falta. Atsobakarreko lursailak industrial bezala izendatuta daude eta hipermerkatua eraiki ahal izateko merkatal lursail moduan kalifikatzea ezinbestekoa da. Udalak uztailaren 28an egin zuen kalifikazio aldaketaren eskaria, eta Diputazioak abenduaren 28a baino lehen eman behar du behin betiko onespina.

Gauzak, ordea, okertzen joan dira. Lurren kalifikazio aldaketari baietza eman aurretik, Diputazioak informe bat eskatu ohi dio Lurralde Antolamenduko Batzordeari eta hauen informea aldaketaren aurkakoa izan zen. Informeak, lurralde antolamenduaren plan partziala amaitu arte, hipermerkatuaren proiektuak geldirik egon behar zuela esaten zuen. Plan hau martxan dago, baina amaitzerako bizpauru urte pasa daitezke, Donostia aldeko bailaren kalifikazioa egiten baita plan honetan.

Joxe Antonio Altuna alkatearen esanetan, informe hau, informe soil bat besterik ez da.



Eroskiko hipermerkatua kokatuko litzatekeen lekua, Atsobakar (Urbarte)

"Lurralde antolamenduko oinarritzko planean (DOT), Atsobakarreko lurralde eremu industrial eta komertzial bezala agertzen dira. Hau honela izanik, Lurralde Antolamenduko Batzordeak plan partziala egin arte itxaron behar dela esan beharrean, DOT-an jartzen duena bete arazi beharko luke". Horregatik, Usurbil nahiz Lasarteko udalek, informe hau kontutan ez hartzeko eskatu zien Diputazioari. "Behin betiko onespina Diputazioak eman behar du, lurren kalifikazio aldaketari onespina ematea berari dagokio. Lurralde Antolamenduko Batzordeak eskumen hori hartuko balu Diputazioaren eginbeharretan sartzea litzateke"

Diputazioak, ordea, ez du oraindik erabakirik hartu. Abenduaren 28a iristeko bi aste falta direnean, ez Usurbilgo udalak, ez Lasartekoak, ezta Eroskik ere, ez dakite zer gertatuko den Atsobakarreko hipermerkatuarekin, baina **Joxe Antonio Altuna** alkateak oso beltza ikusten du Eroskiren

hipermerkatu honen etorkizuna. *"Joan den azaroaren 25ean, goizeko bederatzietan, Roman Sodupe diputatu nagusiak deitu zidan. Egun horretan Atsobakarreko lurren kalifikazio aldaketari buruzko erabakiren bat hartuko zutela eta bere susmoen arabera, atzera botako zutela esan zidan. Guk Usurbil eta Lasarteko udalek eta Eroskik, ez genekien egun hartako diputatu kontseiluko gai zerrendan zihorian ere. Azkenean, ez zuten erabakirik hartu, mahai gainean utzi zuten gaia".*

Abenduaren 9ko diputatu kontseiluan ere gai zerrendan zegoen Atsobakarreko lurren kalifikazio aldaketa. **Jorge Letamendia** Hirigintzako diputatuak goizean deitu zion, berriz ere gaia mahai gainean uztea proposatuko zuela esanez. Piskanaka-piskanaka erabakia atzeratzen ari da diputatu kontseilua. Datozen bi asteetan hartu beharko dute erabakia. Oraingo abenduaren 16a atzeratu dute. Zain geratu beharko dugu.

Zer ari da gertatzen Eroskik Atsobakarren egin behar duen hipermerkatuarekin?

Gauza gehiegi atzeratu da. Arazorik gabeko tramite bateatik ia hipermerkatua ez egitera pasa gara. Goi alde horretan gauzak pertsonalizatu egin dira. Hor apustu bat dago: Pryca Galarretan edo Eroski Usurbilen. Eusko Alkartasunak Galarretako Prycaren hipermerkatuaren aldeko apustua egin du eta lurren kalifikazioaren aldaketaz baliatu dira Usurbilgo hipermerkatua geldiarazteko.

Beraz, guzti honen atzean interes partidistak daude.

Lurralde Antolamendurako Batzordeko zuzendaria den Eusko Alkartasunako Natxo Izetak pertsonalizatu egin du guzti hau. Eusko Alkartasunak Pryca Hernanin kokatzearen aldeko apustua egin du, baina Diputazioak baldintza bat jarri die: sarrera-irteerak hobetu behar dituztela. Orain, Natxo Izeta eta Eusko Alkarta-



Joxe Antonio Altuna
Usurbilgo alkatea

sunak Eroskiren hipermerkatua gelditzeko edo geldiarazteko aukera eskuetan izan dute eta hortaz baliatu dira.

Zergatik atzeratu da hainbeste Diputazioaren erabakia?

Gipuzkoako Diputazioan hirukoa dago agintean. Eusko Alkartasunak ezezkoa eman dio lurren kalifikazio aldaketari, alderdi sozialista Eroskiren hipermerkatuaren alde dago, Ana Urtxuegia Lasarteko alka-tesaren indarra haundia baita, eta Eusko Alderdi Jeltzalea dago tartean, zer erabaki ez dakiela. Hots, erabakia honen esku dagoenez, ez dute busti nahi eta eraba-

kia atzeratuz doa.

Aurrera aterako al da Eroskiren hipermerkatua?

Ni oso ezkorra naiz, etorkizun beltza ikusten diot. Nik etsi dut, eta lurraren kalifikazio aldaketari ezezkoa emango diotela uste dut. 1998. urterako aurrekontuak egiterakoan, Eroskik eman behar zigun dirua ez dugu aurrekontuen sarreretan sartu. Honela, hilerriaren proiektua berriz ere gelditu egin da. Hiru urtetan horrenbeste lan egin ondoren, orain hau? Nahi dutena egin dezatela.

Baina Eroskik diru asko jarri du.

Harrigarria da. Eroskik Diputazioako errepide sailarekin akordioak egin ditu. Sartu-irteerak, errotondak, Aritzetako autobidea... Eroski guzti horiek finantzatzen ari da eta orain Atsobakarrekoa atzera botako dutela dirudi. Hau txapuza bat da.

Zer ari da gertatzen Eroskik Atsobakarren egin behar duen hipermerkatuarekin?

Beste hainbat konturekin batera, Lurralde Antolaketarako Batzordeak egindako informe bat dago tartean. Nire ustez, informe horrek ez du ezertarako balio eta Diputazioak ez luke kon- tuan hartu behar. Hala ere, Diputazioak erabakia hartu arte ez dut honetaz ezer gehiago esan nahi.

Azaroaren 25ean egin zen diputatu kontseiluan kontrako erabakia hartu zuten ia.

Ez dakit bertan behera geldit- zekotan egon zen... norberaren interpretazioaren arabera dago hori. Kalifikazio aldaketa atzera botatzen badute bi udalek errekurtsioa jartzeko aukera daukagu. Diputazioak eze- zko erabakia hartzen



Ana Urtxuegia
Lasarteko alkatesa

badu, Lasarte eta Usurbilgo udalen interesak kaltetuko dira, eta hepaitegian gure alde aterako litzateke epaia. Alde horretatik oso lasai nago.

Zer dago guzti honen atzean?

Atzean Eusko Alkartasunaren eskua dagoela diote. Eusko Alkartasunak Hernaniko Prycaren aldeko apustua egin duela dirudi. Guzti hau penagarria da. Hernanin Pryca jar- tzea oso ondo iruditzen zait, guk honen aurka ez dugu

ezer egin. Bakoitzak bere errit- moa jarraitu du. Guk, bete beharreko arau guztiak bete ditugu, EAren esku dagoen errepide sailarekin negoziaketa- tan ibili gara... Hipermerkatu honek lan asko eman digun arren, arau guztiak bete ditugu. Beraz, bi proiektuei tratu bera emateko eskatu nion Roman Sodupe diputatu nagusiari. Honela gertatzen ez bada, udalen interesak kalte- tuko dira, eta ikusiko genuke zer gertatuko litzatekeen.

Beraz, arrazoi politikoak daude tartean.

Lehen Eusko Alkartasunaren eskua dagoela aipatu dudan arren, ez egotea gustatuko litzaidake. Udalen artean hika- mikarik ez luke egon behar, besteari kalterik egin gabe bakoitzak bere bidea jarraitu beharko luke.

Yolanda Arrieta: "guk ez ditugu istorioak idazten, istorioek guk idaztea eskatzen dute"

Azaroaren 20a arte Yolanda Arrieta ezezaguna zen Usurbilen. Idazlea zela oso jende gutxik zekien eta gainerrako gurasoak bezala herriko frontoian ikusten genuen bere semea zaintzen. Orain, ordea, badakigu zein den Yolanda. Irun hiria saria irabazi berri du eta.

Joan den azaroaren 20an, "Jostarratza eta haria" lanarekin euskarazko eleberriaridagokion Irun hiria saria eskuratu zenuen. Sari hau irabaztea espero zenuen?

Espero... beti izaten da esperantza. Loteria erosten duzuneke sentazio berdina da, zuri egokitzea zaila da baina erosten duzunez... Nik lana aurkeztu ondoren banuen halako izpi txiki bat, baina, ez dakit, zaila zen irabaztea, haundia ikusten bainuen saria. Beste aldetik, zera pentsatzen nuen: eleberrri hau idazteko ahalegin guztiak egin ditut ba nik, lan ezberdina da ba... bueno, esaten nuen, ez noa gehiago pentsatzera.

Saria ez zizutela eman pentsatu zenuela ere esan digute.

Bai, arrazoi duzu. Irun sariaren oinarrietan, erabakia azaroan jakinarazten zela jartzen zuen. Honela, azaroaren 16an, asteartean, deitu nuen zerbait jakin asmoz. Aukeratzea eta sari banaketa larunbatean, hilaren 20an, zela esan zidaten. Sari banaketa larunbatean izanik sarituak irabazlea bera zela, bazekiela pentsatu nuen. Beno, zer egingo diogu ba! Gaizki pasa nuen egun hura. Ondoren orijinala jasotzeko deitu nuen, eta orduan esan zidaten iazko irabazleen sari banaketa eta aurtengoan aukeraketa zela. Esperantza izpia itzuli zitzaidan berriz



Bizkaiko Etxebarri herrian jaioa, herri askotatik pasa da Usurbila heldu arte. Usurbila bizitzera etorri zirela Urteberri egunean beteko dira lau urte

"Jostarratza eta haria" eleberriarekin lortu duzu saria. Zein da lan honen haria?

Liburuaren mamia galdera batean oinarritzen da: Zer gara, ekartzen duguna edo bizitzan zehar egiten goazena? Hau da puntu filosofikoa. Berez, ama batek jaiotzeaz dagoen alabari egindako istorioa da. Alaba mende berria da eta amak mende zaharraren berri ematen dio. Tartean, agertu eta desagertu egiten den soineko beltz misterioitsu bat dago. Hasieran larru zati bat besterik ez zen, baina azkenean emakume soineko beltza bihurtzen da. Pertsonaiak, berriz, Maria eta Txominen deribatua dira.

Denbora asko, lan asko egin behar da honelako lana egiteko?

Haurtzarotik orain arte, 30 urtetan bildutakoaren zaku bat dago, bizitzarekin batera, oroitzapenez, bizipenez betetzen doan zaku bat. Guzti hau lotu eta ordenatzeko urtebete behar izan dut. Egun batzuetan lau, bost ordu, besteetan bat, bi... Nire haurra zaintzeak uzten

zidan denboraren arabera egindako eleberrria izan da. Eguneroko lanarekin batera egin dut lan, lapiko espresa jarri eta idatzi, umeari bularra eman eta idatzi... ez dut estudio itxi batean sortu, etxean baizik.

Idazlea jaio edo denborarekin sortu egiten da?

Nik bizitzari ematen diot garrantzia, bizitzan zehar deskubritzen zoazen bideari. Baina zergatik deskubritzen duzu bide hori? Barruan zerbaitek bor-bor egiten dizulako. Barneko zerbait horrek, gauza konkretu horren bila bideratzen zaitu, eta ez beste horren bila. Nik zergatik bukatu dut idazten? Zerbait esan beharra neukalako, eta hori barrutik datorren zerbait da. Baina, datorren hori bizitzak deskubritzen duen zerbait da. Azken finean, bata motorra da eta bestea kotxea.

Nola sortu da Yolanda Arrieta idazlea?

Txikitik idazteko erraztasuna banuen, baina erdaraz ikasten nuen eskola nazionaletan. 17-18 urterekin, euskararekin topo egin nuen. Garai hartan, alfa-

betatu egin nintzen eta horretarako idazlan ugari egin behar izan genituen. Orduan hasi nintzen idazteari gustua hartzen, deskubrimendu bat izan zen.

Magisteritzan bi irakasle on izan nituen: bata idazten jarraitzeko esaten zidan eta besteak asko irakurtzeko.

Eta magisteritza bukatzean zer egin zenuen?

HABEn hasi nintzen lanean, klaseak ematea atsegin nuen, baina barruan pa-pa egiten zuen zerbait banuela sentitzen nuen, fantasia munduan jarraitzeko esaten zidan zerbait. Antzerkigintzan sartu eta nire lehen ipuin luzea idatzi nuen. Jendea orduan hasi zitzaidan idazle deitzen. Niretzat esperimendua izan da denbora guztian. Ondoren etorri dira gainerantzeko lanak. Orain dela gutxi norbaitek umeentzat idazteari utzi al nion galdetu zidan. Ez, baina dena da deskubrimendua eta beharra. Barruak esaten dit zer egin behar dudana, orduan idatzi egiten dut. Nire ustez, ez ditugu guk istorioak idazten, istorioek eskatu egiten dute guk idaztea.



Magisteritzan irakasle batek asko irakurtzeko gomendioa egin zizun. Asko irakurtzen duzu?

Ahal dudana, umearekin gainera... Nire ustez, asko irakurtzea baino garrantzitsua goa da behar duzuna irakurtzea. Irakurtzea garrantzitsua da, bai, baina bizitzako jarraera ere bai. Nik uste dut, kontua, sentidu guztiekin bizitzea dela; batzuetan irakurtzeak ematen dizu hori, entzuteak besteetan, jendearekin egoteak, natura giroan egoteak... eta beste batzuetan ezer ez egiteak. Gu etengabe egitera ohituta gaude, egin, egin, egin... baina egoten ere ikasi egin behar da. Orduan, irakurri asko egin behar da, baina ez irakurri irakurtzeagatik, irakurri zerbaiterako. Ez baduzu irakurri behar eta egon behar baduzu, ba egon. Egoten ikastea ere garrantzitsua da.

Orain dela lau urte etorri zinen Usurbila. Zer moduz Usurbilen?

Beste komunikabide batean esan nuen moduan, nire Etxebarri deskubritu dut Usurbilen: kanpaiak entzun, ganadua larrean ikusi... Nahiz eta izenik jakin ez, plazartzaren zarenan norbait zara Usurbilen, eta hori, niretzat, oso garrantzitsua da. Batzuk itto egiten dira horrekin, baina ittolarrria leuntzeko oso hurbil ditugu mendia eta itsasoa. Babestua sentitzeak asko laguntzen dit niri, eta hemen babesa dago. Nire haurtzarora ezagutu ez arren, nahiz eta orain nor naizen jakin, plazan umearekin nagoen bat gehiago naiz.

Aukeratzekotan, Etxebarri edo Usurbil?

Biak desberdinak dira, baina muina antzekoa daukate. Hala ere, nire Etxebarri ez da oraingo Etxebarri, nire

memoriako Etxebarri haurtzaroko herria da. Berdinak ez izan arren, badago plaza bat, eliza bat, kanpaiak, mendiak, iluntzetan etxera joateko gogoia, gauak nola isiltzen diren, goizak nola esnatzen diren, igande goizetako isiltasuna... Herri txikietako gauza txiki horiek asko estimatzen ditut, eta batez ere natura inguruan egotea. Mendien, baserri batean ez nintzateke biziko, nik jendearen berotasuna behar dut.

Usurbilen plazan umea zaintzen ezagutu zaitugu...

Umeak gauza askotan baldintzatu gaitu, tartean plazara jeistera. Umeak plaza ikusten duenean beste haurren artera joan nahi izaten du. Baina guraso giro horretan gustora nago, ikasi egiten da. Berez hegan egiteko zalea izanik zera galde diezaiokeet nire buruari: herriko plazan zer? Ba herriko plazan gauza asko ikasten dira. Ikasteko orduan bizimodu normala ez da ahaztu behar. Idazle batek idazlearen unibertsitatea herriko plazan dagoela esaten zuen. Garai batean nik ez nuen hau ulertzen, baina egia da. Hor mundua dago, herriko plaza munduaren erakusleho bat da eta hori ondo ezagutzen baduzu, pertsonen jokabideak ezagutzen dituzu. Hegan egitea beharrezkoa dut, harreman hori ere bai.

Sari honek aldatu du zerbaitetan Yolanda Arrietaren bizimodua Usurbilen?

Pare bat aste pasa dira saria eman zidatenetik eta baretu da ja hasierako aldaketa hura. Orain jende gehiagok agurtzen nau, irrifarreak ikusten dituzu, eta hori begietan ikusten da. Anonimo izatetik lokalizatuta egotera pasa gara.

Josu Aranberri

Senideaken ekimen ibiltaria Usurbilen

Senideakek antolatutako ekimen ibiltariko marxistak Usurbilen izan genituen joan den abenduaren 2ean. Eguerdiko ordubiak aldera iritsi ziren Usurbila, eta Ostape parean ongietorria egin ondoren, manifestaldi baten bidez, herriko pilotalekurrantz abiatu ziren. Bertan, Kinttin Seguroiak bi bertso abestu, eta Aitor Egiletak aureskua eskaini zien marxistei. Ongietorri hau amaitzeko Ainara Uribe hitz egin zuen Usurbilgo Senideaken izenean. Martxari atxekimendua azaldu dioten herriko taldeak eskertzeaz gain, Senideaken mozioa ez onartzeagatik Eusko Alkartasuna eta Eusko Alderdi Jeltzalea salatu zituen Usurbilgo Senideakek.



Bizkarreko parkearen itxura aldaketa



Bizkarreko parkearen itxura erabat aldatu da azken bi asteetan. Guztiz eraberrituta ikusiko duzue orain. Parkea inguratzen zuten pinuak kendu dituzte udaleko langileek. Hasieran erdiraino moztu zituzten, baina joan den abenduaren 9an erabat garbitu zuten parkearen ingurunea.

Batzuk eskertuko dute, kotxearekin bihurgunea ematerakoan ez baitzen ezer ikusten. Orain, bihurgune guztia argi eta garbi ikus daiteke. Bestalde, parkearen intimitatea gustuko zutenak kexu izango dira, parkean lasai-lasai, ezkutuan egoteko aukera eragotzi baitute.

Peruko artisautza erakusketa eta salmenta Usurbilen

Peruko **artisautza erakusketa** bikaina dago Udaregi zaharrean abenduaren 9a ezkerotik. 3. munduari laguntza eman asmoz antolatu da erakusketa hau, udala, guraso eskola eta parrokiako taldearen laguntzarekin. Bertan, artisaulariak ikusteaz gain erosteko aukera ere izango duzue bertara inguratzen zareten guztiok. Erakusketa hau **abenduaren 14a arte** egongo da zabalik. Ordutegia, hauxe duzue: ostiralean 17.00etatik 19.30etara, larunbatean 12.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 19.30etara eta azkenik, igandean 12.00etatik 14.00etara.



Pintxo eta bokata goxo-goxoak

Eguzkitza



Igandetan ganba-ziri mundialak!

SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

LOSU
Ugaldea poligonoa 36 - 2^a Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa
IRA GARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

ANDONI AIZPURUA ETORKIZUNEN KIRO- LARI

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria eta kirol departamentuak 1997/1998 denboraldiko etorkizuneko kirolarien behin-behinekoko zerrenda eman du. 46 kirolari gazte agertzen dira eta hauen artean topatu dugu **Andoni Aizpurua** usurbildarra. Judoan, etorkizun haundiko kirolaria da Andoni eta kirol honetan aukeratu dituzten Gipuzkoako etorkizuneko hiru kirolari gazteetatik bat izatea lortu du. Zorionak, Andoni.



Ez da marka makala. **54 odol emaile** bildu ziren abenduaren 8an Patri tabernan Odol Emaileen Elkarteak antolatutako bazkarian. Giro ederrean berriz ere odola emateko indarra hartzeko aukera izan zuten bertan bildu ziren guztiek. Bapo bazkaldu ondoren, urtero egiten duten moduan, erregali baten zozketa egin zuten bazkaria joan ziren guztien artean. Azkenean, Txokoaldeko **Biftori Illarramendi Zubeldiari** egokitu zitzaion manteleria polit bat.

BI ORDUKO GREBA DEIALDIA ABENDUAREN 15EAN

Herri Batasunako mahakideei ezarri ieten zazpi urteko kartzela zigorra salatzeko, abenduaren 15ean **bi orduko greba** egiteko deialdia luzatu dute LAB, ELA, ENHE, ESK-CUIS, STEE-EILAS eta CCOOko ezker sindikalak. Abenduaren 1ean Usurbilen egin zen herri batzarrean greba orokorra egitea aurreikusitazuten ere, azkenean, greba bi ordukoa izango da. Bestalde, udala geldirik egon da abenduaren 9tik 14a bitartean.



Karlos Aizpurua hirugarren postua eskuratu zuen azaroaren 29-30ean Palentzian ospatu zen zesta puntako klubaren arteko Espainiako txapelketan. Finalerdian, iaz txapeldun izan zen Cabanillas talde nafarraren aurka, 35-34 galdu zuten, eta finalerako txartelik gabe gelditu ziren. Hala ere, hurrengo egunean, 3. postua eskuratu zuten Karlos eta bere bikoteak, Galiziako bikotearen kontra 35-24 nagusitu baitziren.



Pasa den igandean, Izotz taldeko kideak giroa berotzen saiatu ziren frontoian. Ez zuen aurreko egunetako hotzik egin baina frontoia nahikoa hutsik egon zela ere aitortu behar da; herriko gaztetxoek animatu ziren ia bakarrik dantzatzera eta. Hala ere, kanpoan ez baina tabernetan giro ederra zegoenik ezin da ukatu. Barra nahiago izango dugu dantzan egitea baino...

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)



TABERNA



7 t'erdietan
irekitzen dugu

Goizgoizetik
gosariak

Irazu kalea, 12
Tlf: 36 02 17



Inaxio-Koldo Jon-Santxoren aurka 4 t'erdiko finalean

Aitzaga elkarteak antolatzen duen eskuzko 4 t'erdiko pelota txapelketa azken partidutara iritsi da.

Inaxio Arruti eta **Koldo Lertxundi** iazko irabazleak **Jon Sarasua** eta **Santxo** izango dituzte aurkari abenduarren 13an jokatu den azken partiduan.

Partidua gogorra izango da. Ligaxkako partiduan Koldo eta Inaxio 18-5 nagusitu ziren, baina Jon eta Santxo indartsu ibili dira final laurden nahiz finalerdietan. Hala ere, iazko txapelkunek bigarren aldiz eskuratu nahiko dute txapela.

Aurretik hirugarren eta laugarren postua nork eskuratu duen erabakiko duen partidua jokatu da. **Igor Uribe** eta **Iker Mujikak Aintzi anaien** aurka jokatu dute.

Azken partidua jokatu dituzten lau bikoteetatik hiru

finalerdietarako ez ziren sailkatu joan den urtean. Iazko txapelkunek bakarrik errepikatuko dute joan den urtekoa.

Bestalde, 1996an baino bikote gehiagok partehartu dute aurtengo txapelketan. 18 izan dira frontoian nor baino nor aritu diren bikoteak. Aurten, gainera, txapelketaren historian lehenengo aldiz, neska batek jokatu du

4 t'erdiko txapelketa. **Ainara Sagarna** izan da horretara ausartu den bakarra.

Lehenengo partidurako eta finalerako apustuak gori-gorian daude. Kiniela egiteko aukera ere badago, eta Tragoxkan afaria irabazi nahi duenak, partidua nork irabaziko dituen asmatzeaz gain emaitzak ere asmatu beharko ditu.



Arg: Ekaitz

Usurbildarrak Espainiako dardo txapelketan

A benduaren 6tik 8ra Tarragonan, Playa de Haro inguruan, egon dira zenbait usurbildar. Zertara joan ote dira haruntz? Erantzuna sinplea da, Espainiako dardo txapelketan partehartu dute. Iker Alduntzin eta Joxe Manuel Ikutzak aspaldi lortu zuten txapelketa honetara joateko txartela. Donostia aldeko tabernen artean bikoteka

jokatu zuten ligaskan eskuratu zuten bidaiarako txartela.

Igor Uribe eta Eusebio Ikutza ere joan ziren. Hauek, aurreko biak eta Unai Loidi, taldeka jokatu zuten tabernen arteko txapelketan bigarren gelditu ziren. Playa de Haroa joateko lehen postua eskuratu behar zen, baina plaza batzuk libre gelditu zirenez joateko aukera izan dute.

Iker Alduntzinen esanetan, txapelketako maila oso ona zen eta ezin izan zuten gauza haundiegirik egin. Hala ere, gustora etorri dira, esperientzia polita izan baita berriantzat. *"Harrigarria da. 40 dardo makina inguru, denak jarraian, eta toki guztietako jendea dardoak botatzen. Batzuek gainera, munduko txapelketa kasu, ia ez zuten hutsegiten"*.



ZUMET A
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMET A MENUAK
(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Itsaskientsalada hozber oatrufa zapoz
- Zapo txangurr ozbeteriketaitzaki saltsaz
- Aspizuna patata pur e, ondo eta pikilopiperraz haragi saltsatan
- Etxeko azken buruko endegustazioa
- Ardo berezia eta kafea

3.200 pta.

AGINAGA

Elkarri itsatsitako etxebizitzak eraikitzea goaz

- Lau logela
- Bi autorentzako garajea eta txokoa
- 200m²ko lur saila

Kalitate oneko eraikuntzak - Zuzenean eraikitzailearengandik

Informazio gehiago obretan bertan
edo telefono hauetan: 58 09 66 - 64 39 14

Tabernarien elkartea sortzeko bidean

Usurbilen elkarte berri bat sortzekotan da. Kaleberri inguruko tabernariak dira honen bultzatzaile. Izan ere, azken asteetan zenbait aldiz bildu ondoren, tabernarien elkartea sortzeko asmoa dute. Orain arte taberna guztiak bakarka funtzionatu dute, orain, guztien artean, gauzak hobeto egin nahi dituzte eta horretarako elkarte baten beharra ikusi dute.

Tabernarien elkartearen kontua ez da gaur goizekoa, lehen ere biltzen baitziren. Garai batean kuota bat jartzen zuten herrian antolatzen ziren txapelketa desberdinetarako trofeoak etab. erosteko. Oraingo ekimen hau, ordea, guztiz desberdina da. Alde batetik, tabernarien artean elkartasuna lortu nahi dute. Beste aldetik, herriari begira, guztien artean ekitaldi indartsuak antolatzeko asmoa dute.

Heldu gabe dagoen fruitua da oraindik tabernarien elkarte hau. Egin dituzten bi bilertan, hamabost taberna agertu dira ekimen honetan parte hartzeko prest. Hasi Gorriti tabernatik, Kaxkoko tabernak eta Olarriondoko tabernaraino, guztiak elkarte honen beharraz ados daude. Guztiak lan egiteko prest daude eta oraingo, asteen behin bilduko dira.

Idea ugari daudela esan digu **Paulino Ibargoienek**.

Gauza ugari egin daitezkeela ikusten dute, baina pausoz-pauso, poliki-poliki egin nahi dute aurrera. *"Korrika eta presaka hastea ez zaigu komeni. Gauzak poliki egin behar dira. Bakoitzak esango du zer komeni zaion. Txapelkun tabernaren aurrean dantzaldi txiki bat egin behar dela? Aurrera. Hurrengoan, sari bikainekin mus txapelketa egingo da beste taberna batean, gero toka txapelketa... Ideia ugari daude baina puntuz-puntu joan behar dugu, lasai-lasai."* Datorren urterako, hila-bete bakoitzeko ekintzak finkatuz egutegi bat egiteko asmoa dute. Gehiegi kargatu gabe ekintza ezberdinak zehaztu nahi dituzte.

Bestalde, herrian egiten diren beste ekintzetan sortzen diren ezin konponduak ere

konpondu nahi dituzte. Urtezahar gaueko festan, Sagardo Egunean etb.etan sortzen diren arazoak gainditu nahi dituzte elkarte honen bidez. Hemendik aurrera, dena bere bidetik badoa behintzat, elkartetik bideratuko dira herriko ekintzetan sortzen diren arazoak.

Urdaiazpikoen zozketa

Hasteko, taberna bakoitzean urdaiazpiko bana zozketa-tzeko asmoa dute gabonetan. Ondoren metxeroak, kamisetak eta beste hainbat gauza ateratzeko asmoa dute. Izan ere, datorren urtera begira ekintzak antolatzen hasteko dirua biltzen hastea da behin-behineko helburua. Ondoren etorriko dira buruan dituzten ekintza guzti horiek.

Josu Aranberri



Dantzaldiak, mus txapelketak, toka txapelketak... ekintza indartsuak sortu nahi dira tabernarien elkarte honetatik

MAHUKA



GAZTE DENDA
Modako arrop
neguaren atari

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 22 55

Idoia Zabala: orain musika sentitu egiten dut

Txiki-txikitatik ezagutu izan du bibolina bere eskuetan, eta denbora pasa ahala, hobbi bat izatetik bere zati garrantzitsu bat izatera pasa da instrumentu hau. Gaur egun 8. mailan dabil 20 urteko gazte hau, eta abendu honetan Victoria Eugenia antzokian joko du bere lankideekin batera.

Nolatan aukeratu zenuen bibolina?

Hamar urte dituzunean oraindik ez zara gauza asko jabetzen. Beraz, ezin dut esan txikitatik izugarri gustatzen zitzaidanik bibolina, gezurra izango litzatekeelako. Egia esan behar badut, bibolina aukeratu nuen maletinarengatik, xarma berezi bat zuela iruditzen zitzaidalako.

Eta ordu asko ematen al zenituen entsaiatzen?

Baita zera ere! Denok bezala, Zumartera joan baino lehen zerbait jotzen nuen eta horrelaxe azaltzen nintzen maixuaren aurrean. Gero, Donostiako kontserbatoriora joatean, izugarritzko aldaketa izan zen, "zapateko" ederra hartu nuen.

Hainbeste aldatzen al da ba disziplina?

Bai horixe! Kontserbatorioan gauzak argi esaten dizkizute hasieratik. Edo lan egiten duzu edo kalera zoaz. Kurtso bakoitza gainditzeko bi urte dituzu, bestela kanpora, jendea zain dago sartzeko eta. Ja bosgarren urtea da bertan nagoela eta nire ikuspegia zeharo aldatu dela esan behar dut. Lehen bibolina aparteko beste klase batzuk bezalakoa zen, baina orain zerbait gehiago da, nolabait sentitu egiten dut musika.

Une honetan gainera, osoki dedikatzen zara bibolinera, ez ta?

Bai, bibolin klaseez gain, beste ikasgai batzuk ere landu behar ditudalako. Bestetik, zenbait asteburutan koadrila-txo bat bildu eta Donostia edo Iruñeako kaleetan jotzen aritzen gara ondo pasa eta bide batez diru pixka bat ateratzeko. Gainera, une honetan Donostiako Orkestra Sinfonikoarekin naiz zarzuelak jotzen. Dagoeneko Victoria Eugenia antzokian eta Logroñoko antzokian jo dugu. Abenduaren 20 edo 21ean ere berriz jo behar dugu Donostian. Maila honetan beste ikuspuntu batetik ikusten duzu dena. Ez da berdina antzoki batean jo edo herriko plazan jotzea. Gainera, lasai jotzen duzu. Pilabat goazten duzu.

Eta zure etorkizuna musikan al dago?

Oraindik ez daukat oso argi. UBI amaitu nuenean bi aukera izan nituen: edo bibolinarekin jarraitu edo unibertsitatean hasi. Lagun batzuk banituen bi gauzak batera egiten ari zirenak eta nahikoa "erreta" zeudenak. Beraz, musikaren bidetik jarraitzea erabaki nuen. Nire lehendabiziko helburua bibolinako karrera amaitzea da,

hots, 10. kurtsoa amaitzea. Bestela beharbada, damutu egingo nintzateke. Hala ere, unibertsitatea ez daukat ahaztuta, hor egongo da.

Madriren duela gutxi frogatzen zenuen omen zenuen.

Bai, pasa den irailean bertako lagun batzuek esan zidaten nola "Joven Orquesta sinfónica"rako deialdia egin zuten. Froga egin nuen (izugarritzko dardarra nuela), baina ez ninduten aukeratu. Beraiek 9 eta 10. kurtsoko jendea nahi baitzuten. Baina niri gehiago inporta zitzaidan kontaktuak egitea, hori da benetan garrantzitsua, musikaren "mundutxo" ezagutzen joatea.

Orain Zumarten zabilza irakasle lanetan.

Bai, maixuak kanpora joan behar zuen jotzera eta niri proposatu zidan klaseak ematea. Oso gogorra da orain zure burua irakasle ikustea; orain nik ikusten ditut ikasleak; nik egiten nuena egiten dute hauek ere. Baina abendura arte besterik ez da lantxo hau, eh? Ez dut nire burua honetan ikusten.

Idoia Torregarai



Une honetan Idoia Zumarte musika eskolan klaseak ematen dabil. Baina ez dauka oso argi irakasle karrera honetatik jarraituko duen ala ez. Argazkian, Idoia bibolin ikasle baten pieza gainbegiratzen.

Orian izokina berreskuratzen

Santuenetik Zubietarako bidean, Orbeldiko presaren inguruan buelta-txo bat egiten badugu, segituan konturatuko gara obra berezi bat egin dutela bertan. Kristal haundia eta tunel antzeko batek osatzen dute hura, baina, zer dela eta egin dute?

Gipuzkoako Foru Aldundiko Natura eta Ingurugirorako teknikaria den **Iñaki**

Aizpuruak obra honen nondik norakoa kontatu digu:

"Orbeldin egin dugun obra Oria ibaiaren berreskuraketa proiektuaren barruan sartzen da. Proiektu hau duela urte asko hasi zen, eta bere helburua ibaiari bizitza bueltatzea da. Iaz hasi ginen Orian izokin-kumeak jartzen, baina



ikusten genuen Orbeldira iristean ezin zutela aurrera segitu, saltoa haundiegia delako. Horregatik, obra hau egitea erabaki zen. Eskailera antzeko bat jartzen diegu errazago igo daitezen", azaltzen du Iñakik.

Eta badirudi lan honek bere emaitza ematen hasi dela ja. Izan ere, Foru Aldunditik adierazi digutenez, azaroaren azkeneko astean izokin bat harrapatu omen dute gure ibaian. Hauen araber, azken 100 urtetan Oria ibaian gora igo den lehen izokina dugu hau. Hiru kiloko izokin-emea da Orian azaldu dena, iaz ibaira bota zituzten haietako ale bat. Foru Aldundiko kideek harrapatu eta gero, Iruneko Ibarla piszifaktoriara era-

man zuten. Era honetan, arraultzak jarri eta bere kumeak berriro ibaira bota ahal izango dituzte.

Badira ja bost urte proiektu hau bera Urumean martxan jarri zela, eta dagoeneko 30 izokin sartu dira bertan. Iñakiren esanetan, *"Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian tradizio haundiagoa dago maila honetan, badira 40 urte izokin-egintza egiten zaien. Guk ere izokin kumeak markatu egiten ditugu gero jarraipena egiteko".*

Orbeldin egindako obra oraindik bukatu gabe dago, eta egia esan ez dago oso egoera onean, azken euriek bertako kristal bat apurtu eta inguru guztia lokatzez bete baitute. Hala ere, obra honen antzeko beste 10 edo 12 egin ditu Foru Aldundiak Oria guztian zehar, *"baina oraindik ere batzuk falta dira bide guztia erraztu eta izokina gure ibaian erabat berreskuratzeko".*



Beharbada hemendik gutxira irudi hau ikusteko aukera izango dugu Orian.

SALTxiPI



*Txokoalde, z/g
Usurbil*

Tlf. 36 11 27 - 37 10 94

elexpe SOLARIUN
bono bereziak
ileapaindegia

Olarrondo kalea, 1 20170 USURBIL TLF 37 04 62

Lehiaketa

Paseatzen segituko dugu, baina tarteka atse-
den pixka bat ere egokia izaten da eta parke
honetan gelditu gara. Ba al dakizue

non dagoen parke hau?


Erantzuna baiezkoa bada, idatzi berehala eta
Kale Nagusiko 37ko buzoira bota. Oraingoan **Patri**
jatetxean zozketatuko dugu bi pertsonarentzako a-
faria. Zorte on!



Irrifar batekin agertu
zen **Aroa Bengoetxea**
Tragoxka tabernara
argazkia ateratzera.
Ez omen zuen afaria
tokatzerik espero,
baina gustura asko
joango omen da
gurasoekin. Eta
hauek gustura alaba-
ren kontura afalduz!

Aurreko zenbakiko galderari jarraituz
Kalezar aldera iritsi gara. Bai, bide horri
Koipe-eneako jaitziera deitzen zaio.
Monjen konbentutik aurreraxeago dago,
harrizko paretaren ondoan eta N-634 erre-
pidera jeisten da.

Erantzunen arteko zozketa egin ondoren,
irabazlea aginagarra dugu: **Ramon Rezola**.
Zorionak eta on dagizula **Antxeta** jatetxeko
afariak!



Kortia

Hurgintza - Gasak Berokuntza
J. Orbegozo

Bizkarra 1, 1. esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26

CAJA POSTAL-en INBERTSIO FONDOAK

Harpidetu zure Caja Postal- Correos bulegoan
eta bi ordulari oparituko dizkizugu



ARGENTARIA



A genda

ABENDUAK 13 larunbata

- **LAB** eta **ELA** sindikatuek deituta **manifestazioa egingo da Bilbon**. Bertara joateko autobusa aterako da arratsaldeko 15.00etan Joxe Martin enparantzatik. Izena eman nahi duenak ohiko lekuetan eman beza.

ABENDUAK 14 igandea

- **Andatza KKEk mendi irteera antolatatu du Aloña Mendira (Oñate)**. Irteera goizeko 8.00etan, frontoi atzetik.

ABENDUAK 15 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren kontzentrazioa arratsaldeko 20.00etan errotondan.
- **LAB, ELA, ESK, CCOO, ESTEILAS, ENHE eta HBK** antolatuta eta Euskal Herriak konponbidea behar duenaren lelopean, bi orduko **greba** egingo da. Goizeko 11.00etatik 13.00etara. 12.00etan, **manifestazioa** egingo da frontoitik hasita eta arratsaldeko 20.00etan ere bai.

ABENDUAK 17 asteazkena

- **Usurbilgo Udalak antolatuta, Bultz Lan Consultingeko teknikari batek autoenpleguari buruzko hitzaldia eskainiko du Udarregi Zaharrean, arratsaldeko 18.00etan.**

ABENDUAK 20 larunbata

- **Andatza KKEk urteko ekitaldien dia-positiba emanaldia antolatatu du.** Arratsaldeko 18.30etan Udarregi Zaharrean. **Ondoren afaria** egingo da. Txartelak salgai daude Txiriboga tabernan abenduaren 19 arte.

ABENDUAK 22 astelehena

- **Gaur Udalaren urteko azken plenoa** egingo da. Bertan, **1998. urteko aurrekontua onartuko** da. Udarregi zaharrean, arratsaldeko 19.30etan.
- **Euskal Herria askatu!**-ren kontzentrazioa arratsaldeko 20.00etan errotondan.

"Senarra lotu edo
berriaren bila
jira-biraka dabil
umorez kuadrila"

Horrelako umorearekin ibili ziren Gure Pakea zahar egoitzako kideak pasa den udan Urkiolara joan zirenean. Eta oraindik geldirik egoteko gogorik ez dutela eta, datorren **abenduaren 16an Iratxeko monastegira** egingo dute irteera. Goizeko 9.00etan, udaletxe aurretik.



OHARRAK

- ✓ **Pertsona euskaldun atsegin batekin benetako adiskidetasuna trukatu** nahi izanez gero, deitu 27 16 06 telefonora. Izaskun.
- ✓ **Andatza KKEk** gogorazten die bere bazkideei **federatu txartela** atera behar dutela. Lehenengo epea abenduaren 12an amaitzen da. Hurrengo epeak, berriz, hilen bukaretan izango dira. Dirua Kutxako 6622369 zenbakian sartu.
- ✓ **Kate bat galdu da.** Bertan, "Beñat, 1990-9-2" jartzen du. Deitu 37 26 75 telefonora.

LANPOSTUAK

- ✉ **Neska euskaldun bat behar da** haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak deitu 37 27 76 telefonora.
- ✉ **Errenteriako Udalak 7 udaltzain** behar ditu. Eskerak aurkezteko epea abenduaren 12an amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 217. zenbakian.
- ✉ **Errenteriako Udalak errementari bat** behar du. Eskerak aurkezteko epea abenduaren 12an amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 217. zenbakian.
- ✉ **Errenteriako Udalak notifikatzaile bat** behar du. Epea abenduaren 12an amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 217. zenbakian.
- ✉ **Errenteriako Udalak bi administrari laguntzaile, ingurugiroko teknikari bat eta bi operari** behar ditu. Izena emateko epea abenduaren 19an amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 222. zenbakian.
- ✉ **Oñatiko Udalak aerobic monitorea** behar du. Eskerak aurkezteko epea abenduaren 24an amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 219. zenbakian.
- ✉ **Anoetako Udalak gizarte-kultur suspertzaile bat** behar du. Eskerak aurkezteko epea abenduaren 24an amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 225. zenbakian.
- ✉ **Oiarzungo Udalak itzultzaile/administrari bat, udaltzain bat, eta zeregin anitzeko ofizial bat** (elektrikari espezializazioa duena) behar ditu. Eskerak aurkezteko epea abenduaren 26an amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 226. zenbakian.
- ✉ **Antzuolako Udalak idazkari-kontuhartzaile bat** behar du. Eskerak aurkezteko epea abenduaren 26an amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 226. zenbakian.
- ✉ **Usurbilgo Atxega jauregia alokatze-ko** eskerak aurkezteko epea urtariraren 12an amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 229. zenbakian.
- ✉ **Elorriko Udalak operari bat** behar du. Eskerak aurkezteko epea urtariraren 5ean amaitzen da. Informazio gehiago GAOko 232. zenbakian.



MIREN
AZKONBIETA
MITXELENA

"apelliduak abizendu"
Guk lagunduko dizugu, zatoz guregana!

Noaia!!
HAMAROSTERAKIA

EUSKARAREN AHOLKU
BATZORDEA

EUSKAL HERRIAN
EUSKARAZ
84 postakutza
Usurbil

ABENDUAK 12 ostirala

- **Areto futboleko partidua (m): Xabier Edaritegia- Iraurgi kiro-lak.** Oiardo kiroldegian 8.45etan hasita.

ABENDUAK 13 larunbata

- Eskuz 4 t'erdian binakakotxapelketako finalak. Gaueko 8.30etan hasita.
3. eta 4. postua
 Igor Uribe-Iker Mujika
Aintzi anaiak
Finala
 Inaxio Arruti- Koldo Lertxundi
Jon Sarasua-Santxo

ABENDUAK 14 larunbata

- **Eskubaloia partidua** jubenil mailan (n): **Usurbil- Urnietako.** Arratsaldeko 16.30etan Oiardo kiroldegian.
- Bigarren nazionaleko **eskubaloia partidua (2N): Usurbil- Arrasate** Arratsaldeko 18.00etan Oiardo kiroldegian.
- **Eskubaloia partidua** jubenil mailan (m): **Loyola- Usurbil.** Loyolako kiroldegian.
- **Eskubaloia partidua** kadete mailan (m): **Loyola- Usurbil.** Loyolako kiroldegian.
- **Futbol partidua** erregional mailan (m): **Usurbil F.T.- Roteta "B"** Harane futbol zelian
- **Futbol partidua** kadete mailan Harane futbol zelaian(m): **Urnietako Usurbil F.T.** Urnietako kiroldegian.
- **Saskibaloiko partidua (M): Salesiarak- Usurbil S.T.** Urnietako kiroldegian 20.00etan hasita.

- **UGA-k antolatutako frontenis txapelketa.** Arratsalde partean.

ABENDUAK 14 igandea

- **Futbol partidua** jubenil mailan (m): **Usurbil F.T- Urki.** Harane futbol zelaian
- **Hondartzako futbol partidua** Kontxako hondartzan(m): **Meca Rapid- Aginaga Sagardotegia**

ABENDUAK 20 larunbata

- **Areto futboleko partidua (m): Xabier Edaritegia- Lasarte kiro-lak.** Oiardo kiroldegian 8.45etan
- **Eskubaloia partidua** kadete mailan (m): **Usurbil- Basauri.** Arratsaldeko 16.30etan.
- **Eskubaloia partidua** jubenil mailan (m): **Usurbil- Basauri.** Arratsaldeko 18.00etan.
- **Futbol partidua** erregional mailan (m): **Usurbil F.T- Kostkas.**
- **Futbol partidua** kadete mailan (m): **Usurbil F.T.- Hernani C.D** Harane futbol zelaian
- **Futbol partidua** jubenil mailan (m): **Burumendi- Usurbil F.T.**
- **UGA-k antolatutako fronteniseko txapelketa.** Arratsalde partean.
- **Saskibaloia partidua** Oiardo kiroldegian. **Usurbil- Lux Z. K. G.** Arratsaldeko 19.00etan hasita.

AZAROAK 30 igandea

- **Futbol partidua (n): Usurbil F.T.- Zarautz K.E.** Harane futbol zelaian.

EMAITZAK

FUTBOLA

Azaroak 29-30

Usurbil F.T **3** - Groseko **4** (2.R)
Usurbil F.T **2** - Ilintxa **3** (ju.)
Usurbil F.T **2** - Tolosa "B" **3** (ka.)
Arrasate **0** - Usurbil F.T. **0** (n.)

Abenduak 6-7

Texas **0** - Usurbil F.T **2** (2.R.)
Usurbil F.T **1** - Ostadar **2** (n.)
Bergara **3** - Usurbil **1** (1.ju.)

ESKUBALOIA

Azaroak 29-30

Usurbil **28** - E.H.U **27** (2.N.)
Usurbil **15** - La Salle **12** (ju.n)

Abenduak 6-7

Gure Auzune **24** - Usurbil 24 (2N.)

SASKIBALOIA

Etxadi-Frudisk **76** - Usurbil S.T **26**
Usurbil S.T. **50** - Mundarro **76**

ARETO FUTBOLA

Aiako **2** - Xabier Edar. **2**

HONDARTZAKO FUTBOLA

Aginaga Sagar. **2** - Diskos Azo. **3**

4'TERDIKO TXAPELKETA.

Inaxio-Koldo 18 Igor-Iker 11
Jon-Santxo 18 Aintzi anaiak 13

Laburdurak

R.: erregionalak ka.: kadeteak
N: nazionala n.: neskak
ju.: jubenila m.: mutilak



BAZKIDE TXARTELA

5000 PEZETA URTE OSORAKO

Izena: _____
1.Abizena: _____
2.Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Tfnoa: _____
Kontu Korrontea (20 digito): _____